

# Eguzkia txuri



**BEA SALABERRI**  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**U**rriak bultzatu ohi ditu orbelak behera, lertxunak ortzi-mugatik hara eta ikasleak euskaltegieta eta urte guzietako buru hausteeekin berriaz haste.

Zenbat dira Euskal Herri kontinental honetan euskara ikastera, hobetzeraz doazenak? Zenbaki zehatzik ez baitezake nehork eman, demagun orotara 1.800 bat jende ari dela, gau-eskolatan, elkarteetan, nor bere kabuz. Kopuru handia eman lezake, alta, jendetzaren neurriak ekarrita (300.000 biztanle), ehuneko txiki batera ez da heltzen eta horien artean ez dute denek oinarriak ukan arte iraunen.

Euskara ikasteak ezagutzen dituen trabak, eskaintzaren kontu jar daitezke, ekonomikoki ez eskuragarria, bizi eredu zenbaitzuekin kontzilia ezina gerta daitezke. Irakasleak seinala litzakete batzuek, agian, eta itzal horiek entzun daitezke, prestaketa propiorik ez denez, auto-formakuntzaren menpe baitira.

Alabaina, hizkuntzaren jabetzeko bidean, hutsunerik larrienak sustapenera eta erabilerarena ditugu.

Hasteko, hemen ez da hizkuntza ikastera akuilatzen duen politikarik, ez mezu argirik kargudun bakar baten-gandik, dioenik "euskara ikastea desi-

ragarria da, etorkizuneko da, egizu". Egokia litzateke horren erratea. Kainpaina hiper sofistikuak eta erraldioak muntatu gabe, ondorio haztagarriak izan ditzake kargudunen adierazpen publiko argiak eta gomitak, simple eta baikor, urrun xerkatu gabe. Bizkitartean, orainokoa, ofizialki existitzen ez den hizkuntza baten planifikazio lanean dihardutenean, ez da euskararen eta euskara ikastearen promozio argirik egiten publiko zabalari zuzenduz. Aurten ez, ondokoan menturaz?

Ikasleen ikuspegitik betiere, bigarren hutsunea erabilerarena da. Ikastera etorri direnek, gutxitan dute biderik ingurumen hurbilean hizkuntzaren erabiltzeko, gehiago dena ez dute eredurik gizarrean, eredu oso, sano, arautu eta babesturik, hizkuntzaren bizi-koadro bat ematen dienik. Lurralde honetan, erabileraren plangintza eraginkorrik ez da. Usu, erabileraren bultzatzeko asmoa norbanakoei zuzendua da, maiz elkarteek gauzatua, jardun ezberdinen bidez. Bada saiakera bat aisialdi arloan erabileraren bermatzeko, baina batez ere belaunaldi gazteei zuzendua. Garbiki mintza gaitezen, ez da egitura publikoetan, ez parapublikoetan, are gutxiagoko pribatueta, euskararen erabileraren

eraginkorki plangintzatzen, gauzatzen, neurtzen eta erregulatzen duen dispositiborik. Alta, hauek lirateke, prozedura zehatzen bidez arautuak, kontrolagarriak, ikusgarritasun gehien eta onarpen errazena luketenak.

*Txepetx*-en [José María Sánchez Carrión] hirukia marrazten dugu maiz; zoritxarrez, irakurketa okerre (ote), ardura kokatzen dugu norbanakoaren gain: zuri doakizu ikastea, zuri erabiltzea, zuri irudikatzea onura. Eta ahanzen dugu koadro hori, oinarrian, ez dela sekulan hirukoa (ikas-erabil-maita) izan; beste alde batzuk ere dituela, besteak beste hizkuntzaren estatus bat eskatzen duela, ofizialtasuna hots. Sustut, maila indibidualetik hara, kolektiboan errotzen da eta eskatzen du boterederen inplikazioa eta gauzaren neurtua.

Aran, bai, *Gantxigor* kontserbak elebidun etiketatzen dira, kantariak igortzen dira munduan gandi euskal pot-pourriak kantatzera, eta hori guziaz, bistan dena, diruz lagundua izan daitezke, ele ederrez goraitzen da eta egitasmo-plangintza bidez garatzen. Aldiz, ez, ez dezakezu garraio zerbitzua euskaraz ukan, ez zure herriko komunikazio euskarririk, ez ur fakturarik ere, etxera jaso nahi duzun hizkuntzan. ●